

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **12/2016 Foru Araua, urriaren 26koa, Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15. artikulua aldatzeko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

12/2016 Foru Araua, urriaren 26koa, Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15. artikulua aldatzeko

#### ZIOEN AZALPENEA

Onetsi egiten da Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren aldaketa hau, zertarako eta zenbait betekizun betetzen dituzten etxebizitza-erabilerrako ondasun higieziinei errekargua aplikatzea erregulatzeko eta bere harmonizazioa ezartzeko Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-ogasunekin, bertan jasota baitago dagoeneko aipatu errekarguaren aplikazioa. Halaber, aldaketa bat egiten zaio aipatutako foru arauaren 15. artikuluen 13. apartatuari, udalei errazte aldera Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kuota osoan hobariak sartzea, familia-unitatearen diru-sarreraren arabera.

#### ARTIKULU BAKARRA

#### **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO UZTAILAREN 19KO 42/1989 FORU ARAUA ALDATZEA**

Lehena. Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15.9 artikulua aldatzea.

Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15 artikuluen 9. apartatuak honela idatzita geratzen da:

“9. Udalek zergaren kuota osoaren ehuneko laurogeita hemeretzirainoko hobaria ezarri ahal izango dute etxebizitza-erabilera baino ez duten duten higiezinetarako, betiere etxebizitza hori subjektu pasiboaren ohiko bizilekua bada eta bertan bizi den familia-unitatearen kide guztien urteko errenta berrogeita bi mila euro baino gutxiago bada. Halaber, exijituko da hobariaren onuradun diren subjektu pasiboek zein etxebizitza horretan bizi den familia-unitatearen gainerrako kideek ez izatea etxebizitza-erabilera baino ez duen beste higiezin bat.

Udalek hobari horren aplikazioaren baldintzak ezarri ahal izango dituzte baldin eta horren onuradun diren subjektu pasiboek zein etxebizitza horretan bizi den familia-unitatearen gainerrako kideek etxebizitza-erabilera baino ez duen beste higiezin bat badute ehuneko ehunetik beherako portzentajearekin.

Hobari horrek portzentaje ezberdina izan ahal izango du apartatu honen lehen paragrafoan adierazitako mugen barruan, familia-unitatearen errenta-tarteen arabera eta, hala badagokio, etxebizitza horretan bizi diren familia-unitatearen kideen kopuruaren arabera, zehazten den zerga-aldirako.

Apartatu honen lehen paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, ondorengo zehazten da:

a) Errentatzat hartuko da konpentsazio-pentsioengatik eta mantenurako urtekoengatik aplikatutako murrizketan minoratutako zerga oinarria, zeina aipatzen baitu Pertsona Fisikoen

Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 69. artikulua. Horren ondorioetarako, kontuan izango dira apartatu honek hizpide duen hobaria aplikatuko zaion aldiaren aurreko bigarren urtean lortutako errentak.

Aurreko paragrafoan aipatzen duen errenta zehazte aldera, kontuan izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eratorritako datuak, eta ez bada autolikidazioa aurkeztu behar, hori egiaztatu dezakeen beste edozein informazio.

b) Familia-unitatetzat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa.

Bigarrena. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/19189 Foru Arauaren 15. artikuluari 13. apartatu berria gehitzea.

Gehitzen zaio apartatu berri bat, 13., Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/19189 Foru Arauaren 15. artikuluari, ondorengo testuarekin:

“13. Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez-, udalek ehuneko berrogeita hamarrerainoko errenergua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errenergua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezintzat hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinaren Zergaren sortzapen datan.

Errenergua honen aplikazioaren ondorioetarako, etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistral bakarra osatzen badute.

Aurrekoa gora behera, udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den errenergua.”

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehen. Indarrean sartzea.

Foru Arau hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta biharamunean, eta ondorioak izango ditu 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eta hurrengoetan egingo diren ordaintetarako.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari behar diren xedapen guztiak eman ditzan xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 26a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**